

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege Proiektua: murrizketak kondosatzen dira

2022ko maiatzaren 27a



www.ela.eus

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

Sarrera	3-4
Alderdi azpimagarriak	4-6
Ondorioak	7

1. Sarrera

Eusko Jaurlaritzak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren lege-proiektua aurkeztu du.

Nabarmendu behar da lege-proiektuak erabateko koherentzia duela gizarte-prestazioen arloan azken urteetan aplikatutako politikekin: eskubideak murriztea (eta, ondorioz, gastua), hartzaileak fiskalizatu eta estigmatizatzea, eta EAEn pobrezia arloan dagoen errealitatea alde batera uztea.

Proiektuaren balorazioan sartu aurretik, beharrezkoa da eztabaida datu batzuekin kokatzea eta EAEn gaur egun dagoen gizarte-prestazioen eredia nahikoa ez dela eta estaldura zabaldu eta hobetu behar dela errepikatzea.

2020ko Pobrezia eta Gizarte Ezberdintasunei buruzko Inkestaren arabera, pobrezia errealitate izateko arriskuan dauden 100 pertsonatik 30 babes-sistematik kanpo geratzen dira (DBE, EPO eta GLL), 37 pobrezia egoeran daude oraindik, eta 33 irten egiten dira. ELAren iritziz, horrek esan nahi du DBEaren erregulazioak babesik gabe uzten dituela pobrezia-egoeran dauden pertsonen zati handi bat; beraz, edozein erreformak DBEa eskuratzeko gaur egun indarrean dauden baldintzak murriztea ekarri beharko luke.

Caritasek eta Foessa Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko bazterketa eta garapen sozialari buruz 2022ko otsailean aurkeztutako txostenaren arabera, Covid19ren ondorengo egoera aztertuz, 199.000 pertsona zeuden EAEn bazterketa-egoera larrian. Gizartean bazterturik dauden pertsonak EAEko biztanleen %16,3 dira, hau da, 6 biztanletik 1. Arazoak dituztela enpleguarekin, diru sarrerekin eta, ondorioz, kontsumitzeko gaitasunarekin, hezkuntzarako eskubidearekin, osasunarekin eta etxebizitzarekin, eta gizarte-harremanetarako zailtasunarekin (bakardadea edo gizarte-gatazka). "Gizarte baztertua", hau da, gizarte-bazterketa larriaren lekuri muturrekoena dauden pertsonak, dagoeneko 2021ean 100.000 dira, 2018an 20.000 zirenean.

Horrek erakusten du diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa pobrezia mugaren azpitik dagoela. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenek ez dute pertsona pobre izateari uzten gehienetan. Are gehiago, gaur egun gero eta langile pobre

gehiagok jasotzen dute zerbitzua. DBEak pobrezia maila arintzen du, baina babes-maila biziraupenetan dago, bizitza duina izateko aukera emango duten diru-sarrerak bermatzeko baino.

Gogoratu behar da Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak Herri Ekimen Legegile bat aurkeztu zuela pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka, 51.000 pertsonak baino gehiagok sinatua, kopuruak eta baldintzak hobetzeko asmoz. EAJk, PSEk eta PPK HEL tramitera onartzearen aurka bozkatu zuten, eztabaida eragotziz.

Gizarte-prestazioen sistema nabarmen hobetzea planteatzen zuen proposamen bat ez zen eztabaidatu, ez eta behar duten pertsona guztiek alokairu sozialeko etxebizitza eskuratzeko bermea ere.

2. Alderdi azpimarragarriak

Hauek dira lege-proiektuaren ezaugarri nagusiak:

a) Diru sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa

2008an onartutako legeak DBEren zenbatekoa LGSren arabera ezartzen du. Hala ere, 2012tik ez da betetzen ari lege hori. Praktikan, DBEren zenbatekoa urtero EJren aurrekontu orokorretan ezartzen da. Aurrerago ikusiko dugunez, hori dela eta 2008an onartutako legearekiko murrizketa handia ari da izaten .

Lege proiektuak oinarrizko zenbateko bat ezartzen du bizikidetzaren unitate guztientzat (Bizitzako Gutxieneko Diru sarrera, 491,63 euro), eta, hortik aurrera, osagarri sistema bat ezartzen du pertsona heldu bakoitzeko eta etxebizitzaren bizi diren adin txikiko bakoitzeko, baita egoeraren araberrako beste osagarri batzuk ere (pentsiodunak...).

Horrela, proiektuak behin betiko DSBEren zenbatekoa LGSren erreferentziatik baztertzen du, azken urteotan aplikatzen ari diren murrizketak kontsolidatuz.

2023an indarrean sartuko litzatekeen lege proiektuaren arabera, pertsona bakar batentzako DSBE orokorra 737,44 eurokoa izango litzateke, 2022an indarrean zegoena baino 10 euro gehiago besterik ez; beraz, ezin izango litzateke konpentsatu aurtengo KPIa (gaur egun %8 inguru dago). Oro har, lege proiektuaren proposamena aplikatzen bada, zenbatekoak oraingoan antzekoak izango dira (zertxobait handiagoak pensiodunen bizikidetzaren unitateen kasuan eta 4 kideko edo gehiagoko bizikidetzaren unitateen kasuan). Nolanahi ere, zenbatekoak 2008ko legea aplikatzearen emaitzaren oso azpitik geratuko lirateke.

Adibide batzuk jartzearren, DSBE orokorraren kasuan, Gobernuak 300 euroko beharpena proposatzen du 2008ko Legearekin alderatuta. Pensiodunen bat duten bizikidetzaren unitateen kasuan, murrizketa hori 300 eurokoa da, bi pertsona elkarrekin bizi badira.

Erantsitako tauletan ikus daitekeenez, oro har, proposatzen den zenbatekoa murriztu egiten da, 2008ko legean ezarritakoaren aldean. Gainera, adierazi behar da proposatzen den zenbatekoa gaur egun indarrean dagoena baino txikiagoa ere badela, etxebizitza

berean bizikidetzaren unitate bat baino gehiago bizi denean, kasu horietan %15eko indize zuzentzailea aplikatzea proposatzen baita.

Europar Batasuneko pertsona kopurua	RGI 2022 €/hil	RGI 2022, 2008ko legearen arabera	Lege-proiektua (RGI 2023)
1.	727,41	1026,67	737,44
2.	934,05	1318,34	983,26
3.	1033,24	1458,34	1130,75
4.	1033,24	1458,24	1278,24

Pentsiodunak

Europar Batasuneko pertsona kopurua	RGI 2022 €/hil	RGI 2022, 2008ko legearen arabera	Lege-proiektua (RGI 2023)
1.	834,59	1166,67	934,10
2.	1043,24	1458,34	1179,91
3.	1126,70	1575	1327,89

Zergatik ez DSBEren erreforma bat planteatu aurretik murrizketei buelta emateko aukera?

2022ko apirilean, EAEn 51.149 bizikidetzaren unitate ziren diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zutenak. Heterogeneotasun handia dago unitate horien artean. Horrela, unitate hartzaile guztietatik:

- 12.755 pentsiodunak dira (lautik bat).
- 29.245 emakumeek eskatzen dituzte (guztizkoaren %57).

Datuek argi islatzen dute egungo egoera sozioekonomikoaren larritasuna. Langabeziak, prekaritateak, pobrezia eta gizarte desberdintasunak gora egin dute, gizarte babeseko mailak handitzea ezinbestekoa izanik. Hala ere, politikariek lehentasuna ematen diote murrizketak aplikatzeari eta gastua eusteari, lan prekaritateari heltzeko eta irregulartasun egoerekin amaitzeko beharrari baino.

b) Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eta gizarte-larrialdiko laguntzak (GLL)

Hori gutxi balitz, murrizketa are handiagoa da etxebizitzarako prestazio osagarriaren kasuan. 3/2015 Legeak etxebizitzarako prestazio ekonomikoarekin ordeztzea ezartzen zuen, baina gizarte mobilizioek EPO desagertzea ekiditu zuten. Bada, nahiz eta azken urteetan prestazioaren zenbatekoak ere murrizketak izan dituen, orain desagertzea planteatzen da, legea indarrean sartu eta bi urteko epean EPE indarrean sartzeko. Gogoan izan hura arautzen duten baldintzak EPOa baino zorrotzagoak eta murriztaileagoak direla, eta, horren ondorioz, gaur egun prestazio hori jasotzen duten pertsona askok jasotzeko aukera galduko dutela.

Gizarte-larrialdirako laguntzak proiektuan eskubide ez izaten jarraitzen dute, hau da behin diru laguntza hoietarako bideratutako partida ekonomikoa bukatuta beharrianak babes gabe geratzen dira.

c) Erroldatze epeak

Erroldatzeko eskatzen den denbora, oro har, 3 urtekoa izanen da. 2008ko legean urtebetetik 3 urtera aldatu zen. Bizitzeko gutxieneko diru sarrerak sarrerak urtebeteko erroldatzea eskatzen du. Hala ere, lege proiektuak hiru urteko epea mantentzen du.

d) Kolektibo eta familia kaltetuenak zigortuenak jarraitzen dute izaten, kide bakarrekoak, pentsiodunak eta ardurapean adingabeak dituzten familiak hain zuzen.

Aurrerapausoak ematen dira kolektibo jakin batzuekin (pertsone migratuak, gizakien salerosketaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak, sexu-esplotazioaren biktimak, etab.) Hala ere, haren onarpenak gastu mailan izango duen eragina urria izango da. Prestazioaren ohiko jasotzaileak eta taldez ugariak direnak jasango dituzte murrizketak, bai prentziaoren zenbatekoan zein baldintzen gogortzean.

e) Prestazio jasotzaileen eta onuradunen kriminalizatzea

ELAk, eta hainbat gizarte eragileek, salatu dugu iruzurra aitzakitzat erabiltzea, bai botere politikotik bai komunikabide nagusietatik, batzuetan osagai xenofoboak direla medio, pertsona hartzaileenganako kriminalizazioaren eta deskredituaren mesedetan, praktikan muturreko eskuinaren agenda aurrera eramaten dutelarik. Horrela, gizarte prestazioak kudeatzeko benetako arazoak, giza eta baliabide tekniko eza etab. ezkutatu.

Lege-proiektu hau haratago doa. Aurrekoetan salatutako kontrol mekanismoez gain (sistema biometrikoak, esaterako), Lanbideren ikuskapen eta zigorrak ezartzeko aukera ezartzen da. Lanbideko ikuskatzaileek agintaritzaren agente gisa ere jardungo dute, edozein ikerketa eginbide egin dezaketelarik, baita prestazioaren titular eta onuradunen etxeetara edo lanpostuetara sartuz ere. Behar izanez gero, besteen laguntza eska lezakete.

Horrek, gainera, Lanbideri buruz salatutako beste kontu bat birplantearazten du. Baliabide tekniko eta giza baliabide nahikorik ez izatea, Lanbideko langileek horrelako erabakietan parte ez hartzea eta erakundearen antolaketaren defizita agerian geratzea.

f) Justifikazioa falta

Gobernuak erreforma hori defendatzeko azaltzen edo erabiltzen dituen arrazoi askok ez dute inolako justifikaziorik. Ez da memoria edo dokumenturik aurkeztu orainarte aplikatutako neurriekin lortutako emaitzen inguruan, ez prestazio jasotzaileen eta lan merkatuan sartzearen inguruan, ezarritako zigor kopuruei buruz edo kontrol behar edo iruzurrari dagokionez.

Are gehiago, estimulu-neurri asko orain arte erabili ez diren formula zaharrak dira.

3. Ondorioak

- Gizarte prestazioen sistema egokia izatea funtsezko elementua da gizartearen kohesiorako eta pertsonak erdigunean kokatzeko. Prestazio sistemak beharrianak dituzteen sektoreekiko konpromiso kolektiboaren oinarrietako bat izan beharko luke, gero eta gehiago baitira. Egia esan, gizarte prestazioak ez dira aski biztanleriari erantzuteko. Botere politikoak gastuaren kontrolaren eta jasotzaileen jazarpenaren alde egiten jarraitzen du. Diru sarreraren arrakala, arrakala digitala, pertsonen jatorria eta abar lantzeko asmorik ez.
- Beharrezkoa da diru sarrerak bermatzeko errentaren estaldura hobetzea, pobrezia egoeretara ahalik eta gehien iristeko. Orain arte prestazioak murriztu egin badira, lege proiektuarekin DBEren murrizketak egonkortu egingo dira, EPOa desagertu egingo da eta gizarte larrialdiko laguntzak orain bezala ez dira eskubidelez onartzen.
- Prestazioa jasotzen dutenen babes eza erabatekoa da. Legearen interpretazio subjektiboa eta irizpideen etengabeko aldaketak arauaren espiritutik haratago doaz. Beti bezala, politika horien ondorioak herritarrek jasaten dituzte, eta herritarrak kriminalizatu eta egoeraren erantzule izatera iritsiz. Prestazioen onuradunak erabat eta arrazoirik gabe kriminalizatzen dira.
- Ohikoa den bezala, benetako gizartearen parte hartzerik gabe egindako lege proiektua aurkezten zaigu. EHko Eskubide Sozialen kartak egindako proposamenetako bat ere ez da jaso.
- Gizarte prestazioen sistemaren defizita eta benetako kudeaketaarazoak konpondu gabe daude oraindik. Lan merkatuko prekarietatea murriztuko duten eta irregulartasun egoerekin bukatzeako benetako neurriak ezartzea beharrezkoa da. Eusko Jaurlaritzak lan-prekarietatea bultzatzen du, DSBEaren zenbatekoa murrizteko politikaren bidez. Bermatutako diru-sarreraren maila baxua da lan-abusurako eta prekarietatearen hedapenerako biderik onena.

Egoera honen aurrean, ELAk hau eskatzen du:

1. Aurkeztutako lege-proiektua ez onartzea, 2008ko Legea aplikatzea, murrizketarik gabe, eta gizarte prestazioen sistemaren gabeziak hobetzeko eztabaida soziala irekitzea.
2. Ezker politikoari lege proiektuaren aurkako jarrera agertzea eta 2008ko legea hobetzeko alternatibak mahai gainean jartzeko eskatzen diogu. Aurkeztutako proiektua onartu eta/edo babesteak pobrezia aurrea ez egitea eta egoera bidegabeak kronifikatzea suposatuko dute, adibidez pentsiodunen kasuan.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA